

Arratzuko Udala

Osoko Bilkurak 2008ko irailaren 11an eginiko Ohiko Bilkuran erabaki zuen hasiera batez onestea Arratzuko Udaleko diru laguntzen Ordenantza Arautzailea . Horren ostean, jendaurreko informazio aldiari jarri da, eta epe horretan alegaziorik aurkeztu ez denez, ordenantza hori behin betiko egiten da. Ordenantzaren testua honako hau da:

ARRATZUKO UDALAREN LAGUNTZAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-Objektua eta definizioa

Ordenantza honen xedea Arratzuar herritarren artean, alde batetik, kirol eta hezkuntza ekintzak sustatzea eta bestetik Guarderia Publikoetan matrikulatzen dituzten familiei laguntzea ahalbidetuko dituzten laguntzak zehaztea eta arautzea da.

2. artikulua.-Aplikazio eremua

Ordenantza hau Arratzuko udal-mugarrean bizi eta erroldatuta dagoen orori aplikatuko zaio.

3. artikulua.-Laguntza motak eta zenbatekoa

Hauexek dira udalaren diru laguntzak:

1. Gernikako Santanapeko kiroldegiko kirol-eskaintzako abonua lortzeko laguntzak: diruz lagunduko den zenbatekoa Gernikako erroldatuen abonu-tarifen eta Arratzun erroldatuen abonu-tarifen arteko aldea izango da, jarduera hori «Arratzuko» udalerrian egiterik ez badago.
2. Euskara-ikastaroen matrikulak ordaintzeko laguntzak: diruz lagunduko den zenbatekoa ikasturteko euskara-ikastaroen matrikularen prezioaren %50 izango da.
3. Gernikako Santanapeko kiroldegiko kirol-eskaintzako hasiera-ikastaroak ordaintzeko laguntzak: diruz lagunduko den zenbatekoa erroldatuen abonu-tarifen eta erroldatu gabeen abonu-tarifen arteko aldea izango da.
4. Gernikako Segundo Olaeta musika eskolako matrikulak ordaintzeko laguntzak: diruz lagunduko den zenbatekoa erroldatuen abonu-tarifen eta erroldatu gabeen abonu-tarifen arteko aldea izango da.
5. Gernikako guarderia publikoetako matrikula ordainduko den zenbatekoa erroldatuen abonu-tarifen eta erroldatu gabeen abonu-tarifen arteko aldea izango da.

4. artikulua.-Eskatzaileen betekizunak

Laguntzak eskatzen dituztenek honako betekizun hauek bete behar dituzte:

- Arratzuko udalerrian erroldatuta egotea, eskaera egin baino, gutxienez, sei hilabete lehenago.
- 1. eta 3. motako laguntzak jaso nahi dituztenen kasuan, Gernikako Santanapeko kiroldegian eduki behar dute matrikula egina.
- 2. motako laguntza eskatzen dutenen kasuan, Euskadiko Autonomi Erkidegoko edozein hizkuntza-eskola ofizial edo euskaltegitan eduki behar dute matrikula egina.
- 4.motako laguntza eskatzen duten kasuan, Segundo Olaeta musika eskolan eduki behar dute matrikula egina.
- 5.motako laguntza eskatzen duten kasuan, Gernikako guarderia publiko batean eduki behar daute matrikula egina.

5. artikulua.-Ziurtagiriak

- a) Eskatzailearen identitatea ziurtatzen duen agiriaren fotokopia.

- b) Egiten ari den edo egin nahi duen ikastaroaren matrikularen edo abonuaeren fotokopia.
- c) Kontu-korrontearen fotokopia.

6. artikulua.-Eskaerak aurkezteko modua, tokia eta epea

-Eskaera eta 5. artikuluan zehazten den dokumentazio osagarria, «Arratzuko» udaletxean aurkeztu behar da.

7. artikulua.-Laguntza emateko modua

2. eta 4. proiektuetarako, laguntzaren ordainketa egiteko, onuradunak jarduera edo proiektua egin dituela justifikatu behar du, eta, asistentziak, gutxienez, %80koa izan behar du.

8. artikulua.-Interesatuei jakinaraztea

8.1. Hartutako erabakia interesatuei jakinaraziko zaie espedientean agertzen den oharpenetarako helbidean.

8.2. Laguntzaren onuradunei egingo zaie jakinarazpenean beren beregi azalduko zaie zein diren laguntzaren kobratzeko bete behar dituzten baldintzak. Era berean, laguntza emango zaielako erabakiaren jakinarazpena jaso eta 30 eguneko epearen barruan aipatutako baldintzak betetzen ez badituzte, Udalak laguntza ukatuko diela ere jakinaraziko zaie beren beregi.

8.3. Emandako ebazpenaren aurka dagozkien errekurtsoak jarri ahal izango dira, legeari jarraiki.

9. artikulua.-Onuradunen eta hartzaileen betekizunak

Laguntzen onuradunek honako betebeharrak hauek dituzte:

9.1. Eskara eragin zuten inguruabarrak aldaraz ditzaketen euren egoerari buruzko aldaketa guztien berri ematea Arratzuko Udalari.

9.2. Jasotako zenbatekoa laguntzaren xederako erabiltzea.

9.3. Laguntzaren xedeetarako erabiltzen ez bada, zenbatekoak itzultzea.

9.4. 2. motako laguntzen kasuan: gutxienez %80ko asistentzia izatea eta ikastaroa aprobetxatu izana.

9.5. 4. motako laguntzen kasuan: musika eskolaren ziurtagiria aurkeztu beharko da eskolen %80ra joan direla eta ikastaroa aprobetxatu dutela egiaztatzeko.

10. artikulua.-Laguntzak baliogabetzea

10.1. Dirua laguntzaren xede ez den beste helburu baterako erabiltzen bada, laguntza baliogabetzeko arrazoi nahikoa izango da eta berehala itzuli beharko da, organo eskumendunak hartarako eskaera egindakoa. Eskara horri erantzuten ez bazaio, dagokion betearazpen bidea eragingo du, unean uneko jarduera zibilen, penalen edo bestelako jardueren kalterik gabe.

10.2. Eskatzaileek adierazitako datuak gezurra badira, edo datuak ezkututzen badira, eskatutako laguntza ukatuko da, nahiz eta eskatzaileak laguntzarako betekizunak bete.

10.3. Laguntza ordaintzeko prest dagoenetik hiru hilabeteko epea igaro eta, interesatuaren erruz diru-sarrera egiterik egon ez bada, laguntza baliogabetu ahal izango da.

10.4. 9.4 eta 9.5 puntuetan eskatzen diren ziurtagiriak ez aurkeztea.

11. artikulua.-Bateraezintasunak

Ordenantza honetan jasotzen diren laguntzak beste Administrazio batzuek emandakoekin bateraezintasunak dira, eta, kasu guztietan haien osagarri izango dira.

Arratzuko Udalak emandako diru-laguntzak ezin izango du, bakarka nahiz beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuetako diru-laguntzekin batera, ordaindu beharreko zenbateko osoa gainditu. Diru-sarreraren eta gastuen justifikazioan gastuak baino diru-sarrera handiagoak daudela ondorioztatzen bada, Arratzuko Udalaren diru-laguntza soberakina besteko diru-kopurua

izango da.

12. artikulua.-Aurrekontu-esleipena

Ordenantza honi atxikita eman daitezkeen diru-laguntzak 451.481.00 programaren aurrekontu-esleipenaren pentzuan egingo dira.

Arratzun, 2008ko urriaren 28an.-Alkatea, Josu Olano Irazabal.